

Mahai Negoziatzailea (L.A.L.) eta Baremazioa

Atzo, urriak 28, Mahai Negoziatzailea izan genuen, gai bakarrarekin, Leku Aldatze Lehiaketa:

Iazko egoera berdina errepikatu zen. **steilas** sindikatuak enpresari berriro eskatu dio laugarren puntua arauditik kentzeko. Hau da, prozesu honen bitartez LEP-arteko kontratuak ez iraungitzea, LEP-arteko kontratuetan **Lanpostu Eskaintza Publiko** baten bitartez amaitu behar direla zehazten delako.

Enpresak argi utzi zuen puntu hori arautegitik ez duela aterako.

steilas-ek LAL bat egiteko premia dagoela adierazten du. Gure helburua finkoen eskubide bat garatzea da, baina argi dago Enpresak ez duela helburu berdina. Honen adibide bat da LEP-arteko kontratuen identifikazioa egiteko bidali duen eskutitza (irakurri steilas berri 3 atxikituta).

steilas sindikatu bat da eta sindikatu bat den heinean langile guztion eskubideak defendatu behar ditu. Beraz, argi dauka ezin duela guztiz legala ez den araudi bat babestu, ezta urteetan enpresak egindako akatsak estali ere .

Honetaz gain, datorren ikasturteko **Baremazioa/Birbaremazioa azarora aurreratuko** dela zehaztu zen, LALA egiteko asmoz. Baremoan ikasketa gehiago puntuatzeko saiakera egin zen baina enpresak ez zuen onartu. Beraz, joan den ikasturteko baremo berdina erabiliko da.

LANGILE GUZTIEN ONURARAKO,

BIDEZKOA DEN ARAUDIA LORTZEKO

steilas BETI LANEAN.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus